



ENTOMOLOGIA ELKARITAS
ENTOMOLOGIA DE GIPUZKOA
HETEROPTERUS

Heteropterus

Nº 33 Zkia. - Marzo 2015 Martxoa

ISSN: 1576-1819



Frogatzeké egon arren,
dúela gutxiko teoria batek dio
tse-tse eulitik ihes
egitearren jaitzi zirela
lehen hominidoak
zuhaitzetatik.

En 2002 se descubrió en
Costa Rica un nuevo carábido.
Al tener el fémur medio tan
desarrollado recuerda a un bíceps
abultado, por eso se le puso el
nombre de *Agra schwarzeneggeri*
en honor al musculoso actor
Arnold Schwarzenegger.



El japonés Shigeo Yoshi Osaki logró
construir para ello las cuerdas de violín
enrollando para ello las telas de 300 arañas
hembra de *Nephila maculata*. Para cada
cuerda utilizó entre 3000 y 5000 hebras
de tela. No son tan resistentes como las
cuerdas tradicionales hechas de intestinos
pero el sonido es muchísimo
mejor.



Amazonaseko
Polyergus generoko
inurriek beste inurritegietako
arrautzak lapurtzen dituzte
jaiotakoan, beraien
esklabo izateko.



Argitaratzailea / Edita:
Gipuzkoako Entomologia
Elkartea - Asociación
Gipuzkoana de Entomología

Lege-gordailua / Depósito legal:
SS - 1.378/99

ISSN: 1576-1819

Erredakzio taldea / Comité de
redacción:

Pedro Ayerbe
Eli Insausti
Mónica Menéndez
Miriam Moreno
Arantza Oyarbide
Faustino Uranga
Imanol Zabalegui

Azalaren diseinua / Diseño de la
portada:
Faustino Uranga

Azaleko argazkia / Fotografía
de la portada:
Saturnia pyri
(Denis & Schiffermüller, 1775)
LEPIDOPTERA: SATURNIIDAE
Imanol Zabalegui

Dohainikako argitalpena bazkide,
Gipuzkoako Eskola eta Udale-
txeentzat / Publicación gratuita
para los socios, Colegios y
Ayuntamientos de Gipuzkoa.

HETEROPTERUS

Egoitza soziala / Sede social:
Oiartzun (Gipuzkoa)

Gutunak helbide honetara bida-
li behar dira / Toda la corres-
pondencia debe enviarse a:



HETEROPTERUS
Apdo. 193 P.K.
20120 Hernani (Gipuzkoa)



www.heteropterus.org
heteropterus@heteropterus.org

Nº 33 Zkia. • Marzo 2015 Martxo

HETEROPTERUS

GIPUZKOAKO ENTOMOLOGIA ELKARTEA
ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA

AURKIBIDEA – ÍNDICE

	Orr. / Pág.
Editoriala / Editorial	4
Elkarrizketa / Entrevista	5-8
Miriam Moreno	
Carlos Aseginolaza (†)	9-10
Gipuzkoako intsektuak / Insectos de Gipuzkoa	11-14
Elkarteko informazioa / Información de la Asociación	15
Intsektuak musikan / Los insectos en la música	16-19
Faustino Uranga	
Hemeroteka	20-21
Intsektuekin jolasean / Jugando con los insectos	22
Faustino Uranga	



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Udalaren laguntzarekin

Con la colaboración del
Ayuntamiento de Oiartzun

www.heteropterus.org

EDITORIALA - EDITORIAL



Bazkide egiteko datuak / Datos para hacerse socio

Izen Abizenak / Nombre y Apellidos.....

Helbidea / Dirección.....

Herria / Localidad.....KP / CP.....

Bazkide / Socio: 25 euro urteko / anuales (2015)
Bazkide gaztea / Socio juvenil: 20 euro urteko / anuales (2015)
(Para el extranjero 5 euros más / Atzerriko 5 euro gehiago)

“HETEROPTERUS”

**Gipuzkoako Entomologia Elkarte -
Asociación Gipuzkoana de Entomología**
Egoitza soziala / Sede social: OIARTZUN (Gipuzkoa)

✉ Gutunak / Correspondencia: Apdo. 193 P.K.

20120 HERNANI (Gipuzkoa)

🌐 www.heteropterus.org

✉ heteropterus@heteropterus.org

Orri hau ez baduzu moztu nahi, fotokopia batean edo paper batean bidali ditzakezu zure datuak. Si no quieres cortar esta hoja, puedes fotocopiarla o simplemente mandarnos tus datos escritos en una hoja.

ELKARRIZKETA - ENTREVISTA

Egilea / Entrevistadora:
Miriam Moreno

FERNANDO CARASA CALATAYUD:

BIZITZA OSOA NATURARI ESKAINITAKO PERTSONA

TODA UNA VIDA DEDICADA A LA NATURALEZA

Fernando Carasa Calatayud entomologoa da zaletasunez eta Heraclio Fournier karta lantegiko mantentze-lanen ardura-duna ofizioz. Bere bizitzako bi arlo horiek uztarturik, taxidermia lanetan aritu da, hau da, animalia hilak diseekatzeko.

Fernandok, estatu mailan taxidermian hain ezaguna izan zen gizonak, bere jaioterrian izan zuen lehen harremana naturarekin, Liendo herrixkan (Santander), hain zuzen. Zazpi urterekin xomorroak harrapatu eta zapata kaxa batean gordetzen omen zituen. Garai hartan *Cerambyx cerdo*-ak "bizirik askatzen nituen", kontatzen du ezpainetan irribarrea duela.

Horrela hasi zen bere zaletasuna, bere bizitza osoan (82 urte) izan duen zaletasuna. Horren ondorioz, balio entomologiko handia duen bilduma egin du. Gasteizen duen etxeko estudiora joan eta han erakutsi dizkigu txukun-txukun katalogatuta gordetzen dituen kaxa entomologikoak (150 baino gehiago). Iberiar Penintsula osoko tximeletak gordetzen ditu bertan multzokatuta: alde batetik egunekoa, eta bestetik gauekoak. Koleoptero bilduma eder bat ere badu

Entomólogo por afición, y encargado de mantenimiento de profesión en la fábrica de naipes Heraclio Fournier, Fernando Carasa Calatayud unió estas dos facetas de su vida dedicándose al desconocido mundo de la taxidermia, el arte de disecar animales muertos.

Pero antes de llegar a ser uno de los taxidermistas más reconocidos del Estado, Fernando comenzó su contacto con la naturaleza en su pueblo natal Liendo (Santander). Nos cuenta que allí recogía bichos con 7 años y los metía en una caja de zapatos. Aquí evoca al *Cerambyx cerdo*. "Los soltaba con vida" dice riendo.

Así comenzó una afición que le ha llevado, a lo largo de sus 82 años, a reunir una colección de insectos de incalculable valor entomológico. Nos la enseña en el estudio de su casa de Vitoria-Gasteiz, donde guarda más de 150 cajas entomológicas catalogadas con primor. En ellas guarda series de especies de mariposas diurnas y nocturnas de toda la Península Ibérica. También posee una buena colección de coleópteros (Carabidae, Cerambycidae, Cetoniidae, etc.). Todo

(Carabidae, Cerambycidae, Cetonidae, ...). Lan hori beste kaxa batzuekin osatzen da, zeinetan mundu osoko beste entomologo batzuekin trukaturako tximeleta eta kakalardo exotikoak gordetzen dituen. Denbora erraz joan zaigu, ezin hobeki disekatuta dauden *Troides*-i, *Ornithoptera*-ri, *Morpho*-ri eta horrelako tximeleten edertasunari liluratuta begira; baita aparteko neurriko hainbat *Goliathus*-i, *Titanus*-i, *Acrocynus*-i... begira ere. Fernandoren laurogeitaka urteko begiradak distira berezia agertzen du, intsektu horietako batzuk hartzeko egin zituen ibilaldiak gogora ekartzean...

Ibilaldi horietako batean "*Saturnia pavonia*" kolonia bat aurkitu omen zuten eta horietako ar batzuk markatu omen zituzten. Ezusteko ederra hartu omen zuten, handik 15 bat kilometrotara haiek markaturako ale haietako batzuk aurkitzean. Fernandok dio horixe dela tximeleten higikortasuna erakusten duen adibide argi bat.



60. eta 70. hamarkadetan "Carasa Anaïen" taxidermia tailerrak ospetsuak izan ziren eta bertatik animalia kopuru

ello se complementa con cajas llenas de impecables ejemplares de mariposas y escarabajos exóticos, la mayoría de ellos conseguidos a través de intercambios con otros entomólogos de todo el mundo. Nos entretenemos observando fascinados por la belleza de lepidópteros *Troides*, *Ornithoptera*, *Morpho*, etc., perfectamente disecados y coleópteros *Goliathus*, *Titanus*, *Acrocynus*, etc., de extraordinario tamaño. Su octogenaria mirada se ilumina al recordar las excursiones en las que recolectó algunos de los ejemplares....

En una ocasión encontraron una población de "*Saturnia pavonia*" y se dedicaron a marcar algunos de los machos. Cual no sería su sorpresa al encontrar algunos de estos ejemplares marcados a 15 km de distancia. Es un claro ejemplo de la increíble movilidad de las mariposas, comenta Fernando.

Durante los años 60 y 70 por los famosos talleres de taxidermia de "Los Hermanos Carasa" desfilaron innumerables ejemplares a los que Fernando, junto con sus hermanos, disecaba de manera magistral. Sobre todo cabezas de toro, que eran muy solicitadas en Sudamérica. Pero por sus instalaciones también recobraron postura natural: leones, una anaconda de nueve metros, el primer gorila que se disecó en España... Recuerda Carasa su preocupación por estudiar a los ejemplares vivos, para poder

plasmar sus posiciones de manera realista al disecarlos. "Incluso visitando el Circo para poder visualizar las posturas

izugarria pasa zen, zeinak Fernandok eta bere anaiek maisuki diseckatu zituzten; batez ere, zezen buruak, Hego Amerikan oso preziatuak. Baina instalazio horietan animalien jarrera naturala ere berreskuratzen zuten: lehoiak, bederatzi metroko anakonda bat, Espainian diseckatu zen lehenengo gorila... Carasaren kezka nagusia animalia biziak ikertzea izanda, diseckatutakoan ahal zen postura errealea izan zeza ten. "Zirkura ere joan ginen lehoi bat diseckatzeko eckarri zigutenean, horiek egoera naturalean dituzten posturak ikertzeko" dio Fernandok.

On Juan Arregirentzat egin zuten lan asko, Alaves futbol taldearen lehendakariaren dekanok eta filantropo ezagunarentzat. Hil zenean, 1999. urtean, aparteko ondarea utzi zuen: animalia diseckatuen bilduma partikularra, mundu osoan bakarra. Fernandok gogoa du bildumaren zati bat Gasteizko bere lantegiko bulegoaren ondoan zuela, eta bertatik igarotzen ziren ikasleei eta ikusleei On Juanek bere denbora eta adiskidetasuna eskaintzen ziela. Bilduma horren balorea kalkulaezina da didaktikoki, zientifikoki eta kulturalki, eta hainbat tokitako museoek eta erakundeek eskatu zuten. Hala ere, euskal erakundeek ez diote behar zuen adinako merezimendutik eta traturirik eman, nahiz eta Fernandok argi eduki berak hemengo museoaren bati eman nahi ziola bere izena eramango zuen fundazio baten bidez. Gai hau zaila egiten zaio Fernando Carasari, gogora baitatorkio On Juan Arregirik sentitu zuena, beraien taileretan bederatzi metro neurtzen zituen diseckatutako suge izugarri hura eman ziotenean: "Malkoak atera zitzaizkion bizirik zegoela ematen zuen animalia zuhaitz baten adar tartean ikusi zuenean".

de los leones cuando nos llegó algún ejemplar al taller", comenta.

Trabajaron mucho para Don Juan Arregui, el que fuera decano de los presidentes de clubes de fútbol con el Alavés y de reconocido carácter filantrópico que, al morir en 1999, dejó un extraordinario



patrimonio: el de su colección particular, única en el mundo, de animales diseckados. Recuerda Fernando que buena parte de ella la tenía expuesta junto a su despacho en la fábrica de Vitoria y por allí pasaban escolares y curiosos, a los que dedicaba parte de su tiempo y su amistad. Esa colección, de incalculable valor didáctico, científico y cultural, reclamada por museos y/o instituciones de muchos lugares, no ha sido reconocida y tratada como merece por las instituciones vascas, pese a la clara intención de su propietario de cederla para un museo a través de una fundación que llevara su nombre. Es un tema sensible para Fernando Carasa que recuerda emocionado como reaccionó Don Juan Arregi el día que le entregaron la gigantesca serpiente de 9

Gaur egun Fernandok oraindik lanean dirau eta Junta Nacional de Homologación de Trofeos de Caza-
rentzat ehizeko trofeoak homologa-
tzen dituen espezialista bakarreneta-
koa da. Hain zuzen ere, elkarrizketa
hau egin genuen egunean, bi basur-
deren letaginak iritsi zitzaizkion,
ehizatu zituzten ehiztariek letagin
horien ezaugarrien balorazioa egin
zezan nahi baitzuten; izan ere,
Fernando Carasa horiek modu
ofizialean homologatzen dituen
pertsona baita.

Eta hor utzi dugu, bere estudioan,
tximeleta eta kakalardo kaxa artean.
Bere zaletasunekin okupatua utzi
dugu, bere familiaz inguratua, bizitza
osoa natura ulertzen eman duen
gizona.

metros que habían disecado en su taller.
"Se le caían las lagrimas al comprobar
que el animal parecía vivo entre las
ramas de un árbol".

Actualmente Fernando todavía permane-
ce activo y es de los pocos especialistas
que homologa trofeos de caza para la
Junta Nacional de Homologación de
Trofeos de Caza. Precisamente el día
que realizamos esta entrevista le llegan
dos ejemplares de colmillos de jabalí
cuyos cazadores desean conocer la valo-
ración de sus características que
Fernando Carasa se dedica a homologar
de forma oficial.

Y ahí le dejamos, en su estudio. Entre
cajas de mariposas y escarabajos.
Ocupado con sus aficiones. Rodeado de
su cariñosa familia. Una vida plena dedi-
cada a entender la naturaleza.



Txango entomologiko batean egindako argazkia, Foz de Arbayun-eko begiratokian (Nafarroa).
Ezkerretik eskuinera: Fernando Carasa, Manuel Aguirresarobe, Imanol Zabalegui eta Faustino Uranga.
Fotografía tomada en el mirador de la Foz de Arbayun (Navarra), en una de sus numerosas excursiones entomológicas.
De izquierda a derecha: Fernando Carasa, Manuel Aguirresarobe, Imanol Zabalegui y Faustino Uranga.

CARLOS ASEGINOLAZAREN OMENEZ

EN MEMORIA DE CARLOS ASEGINOLAZA

Urtarrilaren 16tik Carlos falta zaigu. Carlos Aseginolazaren (Idiazabal, 1955 – Oiartzun, 2015) heriotzaren albisteak izoztu du negua. Udaberria iritsiko da, eta berarekin batera distira botanikoa ere bai, baina haren pausoak faltan izango dira Oielekuko orbelaren gainean, haren hitz egokiak faltan izango dira hamai-ka bilera, topaketa eta irteeratan. Carlosen adore jakintsua faltan izango da jakinduria adoretuaren falta duen herri txiki honetan.

Ez da beharrezkoa botanikari honen ibilbide zientifikoa azpimarratzea, ez baldin bada gogoratzeko hor daudela haren egile-tza eta egilekidetza guztiak, hain funtsezkoak izan diren hainbat lanetan, hala nola "Catálogo florístico de Álava, Vizcaya y Guipúzcoa", "Vegetación de la Comunidad Autónoma del País Vasco" edo "Euskal Herriko landareak eta inguruetaoak sailkatzeko gako irudidunak". Alegia, ez baldin bada gogoratzeko haren eskuzabaltasuna eta jakintza gurekin jarraitzen dutela liburu horiek

Desde el 16 de enero nos falta Carlos. La noticia del fallecimiento de Carlos Aseginolaza (Idiazabal, 1955 – Oiartzun, 2015) ha congelado el invierno. Llegará la primavera y con ella el esplendor botánico, pero faltarán sus pasos sobre la



kontsultatzen ditugunero. Irakasle, biologo eta ingurugiro-tekni-kari modura egin zuen lana. Urte askotan zehar Oiartzungo Udalean eta duela gutxitik Gipuzkoako Foru Aldundian. Artikutzatik bueltan zeto-rrerarik, trafiko-istripu batek betirako lotu du Carlos hainbeste maite zituen eta hainbeste maite zuten mendi horiekin.

Gipuzkoako Entomologia Elkartean ez dugu inoiz ahaztuko Carlosen babes sendoa Aiako Harria Parke Naturaleko ikerketa entomologikoa zela eta, ez eta haren

aholku botanikoak ere. Baina, guztiaren gaineratik, bere jatoriasuna eta adiskidetasuna mantenduko dira gure gogoan. Adibidez, orbelaren soinuagatik.



hojarasca de Oieleku, faltarán sus acertadas palabras en reuniones, encuentros y excursiones. Faltará su aliento sabio y faltará savia en este pequeño país.

No es necesario insistir en su destacada trayectoria científica como botánico, salvo recordar que ahí están todas sus autorías y coautorías en obras tan fundamentales como el "Catálogo florístico de Álava, Vizcaya y Guipúzcoa", la "Vegetación de la Comunidad Autónoma del País Vasco" o las "Claves ilustradas de la flora del País Vasco y territorios limítrofes". Salvo recordar, en definitiva, que su generosidad y conocimiento siguen con nosotros cada vez que consultamos estos libros.

Trabajó como profesor, como biólogo y como técnico de medioambiente. Muchos años en el Ayuntamiento de Oiartzun y desde hacía poco tiempo en la Diputación Foral de Gipuzkoa. Un accidente de tráfico volviendo del bosque de Artikutza lo ha entregado a unos montes que amó, a unos montes que lo amaron.

En la Asociación Gipuzkoana de Entomología nunca olvidaremos el decidido apoyo de Carlos al estudio entomológico del Parque Natural de Aiako Harria, ni

sus consejos botánicos. Pero, por encima de todo, perdurará el recuerdo de su simpatía y amistad. Por ejemplo, en el sonido de la hojarasca.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA

LEPIDOPTERA

NYMPHALIDAE

Melitaea cinxia

(Linnaeus, 1758)



Neurria: 34-40 mm.

Bi belaunaldi dituzte, bata maiatzetik ekainera eta bestea uztailetik abuztura.

Beldarrek Plantaginaceae-ak (*Plantago*) janez elikatzen dira eta zetazko poltsa baten barruan, taldeka hibermatzten dute.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 34-40 mm.

Vuela en dos generaciones en mayo-junio y julio-agosto.

Las orugas se alimentan de Plantaginaceae (*Plantago*) e invernan en grupos envueltos en una bolsa de seda.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NYMPHALIDAE

Melitaea phoebe

(Denis & Schiffermüller, 1775)



Neurria: 38-46 mm.

Bi belaunaldi dituzte, bata maiatzetik ekainera eta bestea uztailetik abuztura.

Beldar gisa ematen dute negua.

Asteraceae-ak (*Centaurea*) eta Plantaginaceae-ak (*Plantago*) janez elikatzen dira.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 38-46 mm.

Vuela en dos generaciones en mayo-junio y julio-agosto.

Invernan como oruga.

Se alimentan de Asteraceae (*Centaurea*) y Plantaginaceae (*Plantago*).

Es escasa en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



LEPIDOPTERA

NYMPHALIDAE

Melitaea athalia

(Rottemburg, 1775)

Neurria: 36-44 mm.

Bi belaunaldi dituzte, bata maiatzetik ekainera eta bestea uztailetik abuztura.

Beldarrek Scrophulariaceae-ak (*Melampyrum*) janez elikatzen dira eta zetazko poltsa baten barruan, taldeka hibernatzen dute.

Gipuzkoan oso arraroa da.

Tamaño: 36-44 mm.

Vuela en dos generaciones en mayo-junio y julio-agosto.

Las orugas se alimentan de Scrophulariaceae (*Melampyrum*) e inveman en grupos dentro de una bolsa de seda.

Es muy rara en Gipuzkoa.



LEPIDOPTERA

NYMPHALIDAE

Melitaea parthenoides

Keferstein, 1851

Neurria: 30-36 mm.

Bi belaunaldi dituzte, bata maiatzetik ekainera eta bestea uztailetik abuztura.

Beldarrek hibernatu egiten dute eta Plantaginaceae-ak (*Plantago*) janez elikatzen dira.

Gipuzkoan maizkoa da.

Tamaño: 30-36 mm.

Vuela en dos generaciones en mayo-junio y julio-agosto.

Las orugas inveman y se alimentan de Plantaginaceae (*Plantago*).

Es frecuente en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Hoplodrina ambigua

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Neurria: 25-30 mm

Helduek bi belaunaldi dituzte ekaina eta urria bitartean. Biotopo mota guztietan aurki daitezke: soroetan, basoko argiuneetan, itsasbaterrean, etab.

Beldarrek belarkarak jaten dituzte: *Plantago*, *Urtica*...

Batzuetan izurriteak sortzen dituzte.

Gipuzkoan oso maizkoa da.



Tamaño: 25-30 mm.

Los adultos vuelan en dos generaciones entre junio y octubre frecuentando todo tipo de biotopos: prados, claros de bosques, costa marina...

Las orugas se alimentan de plantas herbáceas como *Plantago*, *Urtica*...

A veces causan plagas.

Es muy frecuente en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Hypena crassalis

(Fabricius, 1787)

Neurria: 27-30 mm

Helduak, normalean, ekain eta abuztu bitartean ikus daitezke penintsula iparraldean. Ale gutxi batzuk bakarrik topa daitezke. Pinudietan eta zohikaztegietan ibiltzen dira.

Beldarrek *Vaccinium*-a (ahabia) eta *Urtica* jaten dituzte, besteak beste.

Gipuzkoan oso urria da.



Tamaño: 27-30 mm.

Los adultos vuelan generalmente entre junio y agosto. Bonito noctuido que solo se encuentra y de forma escasa en el norte peninsular. Frecuentan pinares y turberas.

Las orugas se alimentan de *Vaccinium* (arándano), *Urtica*....

Es muy escasa en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Neurria: 28-35 mm

Helduek apiriletik abendura bi belaunaldi izaten dituzte. Biotopo desberdinak dituzte gustuko.

Hypena familiako tximeletak ikustea erraza da kobazuloetan, zubi azpian eta argi tranpen alde ilunean.

Beldarrek *Parietaria*, *Urtica*... jaten dituzte.

Gipuzkoan urria da.



Neurria: 27-32 mm

Belaunaldi bakarra duten tximeleta hauek baso mistoetan, soroetan eta zuhaixketan aurki daitezke urritik abendura bitarte. Espezie hau penintsula iparraldean aurkitzen da soilik eta Gipuzkoan, lehen aldiz, 2003an aurkitu zen, Mutrikun, hain juxtu ere.

Beldarrek landare belarkarak jaten dituzte:

Rubus, *Urtica*, *Humulus*...

Gipuzkoan oso urria da.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Hypena obsitalis

(Hübner, [1813])

Tamaño: 28-35 mm.

Los adultos vuelan en dos generaciones de abril hasta diciembre en todo tipo de biotopos. Como todas las *Hypena*, se las puede atrapar en cuevas, debajo de puentes y en el lado oscuro de las trampas de luz.

Las orugas se alimentan de *Parietaria*, *Urtica*...

Es escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Hypena rostralis

(Linnaeus, 1758)

Tamaño: 27-32 mm.

Los imagos vuelan en una generación de octubre a diciembre frecuentando bosques mixtos, praderas y arbustos. Esta especie solo se encuentra en el norte peninsular y en Gipuzkoa se citó por primera vez en 2003 en la localidad de Mutriku.

La oruga se alimenta de plantas herbáceas: *Rubus*, *Urtica*, *Humulus*...

Es muy escasa en Gipuzkoa.



Elkarteko informazioa Información de la Asociación

Liburutegia hazten ari da

Argitalpenen trukeari esker, Elkarteko liburutegian 100 aldizkari baino gehiagoko 2900 ale daude dagoeneko. Aldizkari hauen izenak eta beste xehetasun batzuk gure web orrian kontsulta daitezke (http://www.heteropterus.org/e_liburutegia.html). Aldizkari horietako batzuen paperezko bertsioa baino ez da existitzen eta horra hor balio erantsi bat, guztion den ondare honena. Zalantzarik ez izan edozein kontsulta eskatzeko... ez eta edozein donazio egiteko ere, aldizkariena zein liburuena.

La biblioteca crece

Gracias al intercambio de publicaciones, la biblioteca de la Asociación cuenta ya con 2900 volúmenes de más de 100 revistas, cuyos títulos y otros detalles pueden consultarse en nuestra página web (http://www.heteropterus.org/c_biblioteca.html). Algunas de estas revistas solo existen en versión impresa y he ahí un valor añadido de este patrimonio, que es de todos. No dudéis en solicitar su consulta... y tampoco dudéis en realizar cualquier donación, tanto de revistas como de libros.

Gipuzkoako Entomologia Elkarteko Bilduma

Bilduma handitzen eta antolatzen jarraitzen dugu.

Aurten, Asiako liztor (*Vespa velutina*) habia bat lortu dugu.

Habia horietako batzuen tamaina ikaragarria da, 60 zentimetro baino gehiagoko diametroa baitute.

Egoki mantenduta erakusgai jarriko da "Gipuzkoako Entomologia Elkarteko Erakusketa ibiltarian".

Colección de la Asociación Gipuzkoana de Entomología

Se sigue ampliando y organizando la colección.

Este año hemos conseguido un nido de avispa asiática (*Vespa velutina*). Algunos de estos nidos son espectaculares en tamaño con más de 60 centímetros de diámetro.

Conservada adecuadamente, se añadirá a la "Exposición itinerante de la Asociación Gipuzkoana de Entomología"



Intsektuak musikan

Los insectos en la música (8)

<http://intsektuakmusikan.blogspot.com/>

Faustino Uranga



Synth-pop-aren, minimalismoaren eta new wave-ren nahasketa den proiektu frantsesa, 2004. urtean sortua. Irudian *Saturnia pavonia* ale batzuk ikus daitezke, hazkunde-garai guztiak islatzen direlarik.


Makina Girgir Torment 2013 La Forme Lente

Proyecto francés creado en 2004 que se dedica a una mezcla entre synth-pop, minimalismo y new wave. En la imagen vemos varios ejemplares de *Saturnia pavonia* en todas sus fases de crecimiento.

Teklatu analogikoak gustuko dituen musiko elektronikoa alemana. Hau da bere azken lana eta zalantzarik gabe esan dezakegu tximeletak atsegin dituela, hain zuzen ere, bere karatuletan tximeletak agertzen diren hirugarren aldia baita. Teknoa eta house-a nahasten ditu.

Robert Babicz The Owl and the Butterfly 2013 Systematic Recording


Músico electrónico alemán amante de los teclados analógicos. Es su último lanzamiento y desde luego parece que le gustan las mariposas porque es la tercera carátula con ellas. Mezcla el house con el techno.



Darkwave-ko eta EBM-ko talde aleman honen azken lana. Taldearen izenari keinu bat eginez, oraingo karatulan tximeleta mekaniko bat agertzen da, baina aurreko karatuletan agertutako pteroforido-an oinarritua dago.

Mechanical Moth Unendlichkeit 2013 Scanner

Último lanzamiento de este grupo alemán de darkwave y EBM. Esta vez reflejan en la carátula una mariposa mecánica que hace alusión a su nombre de grupo, pero está basado en las anteriores carátulas en las que aparecía un pterofórido.



Musika esperimentalaren, doom-aren eta trip-hop-aren inguruan dabilen musiko poloniarra. Karatulan *Inachis io* tximeleta kosmopolita agertzen da buruz behera.

Echoes of Yul Tether 2014 Zoharum

Músico polaco que ronda la música experimental, el doom, el trip-hop... la mariposa que aparece boca abajo es una *Inachis io*, muy común por todos los lados.

Musikari elektronikoz, langilez eta programatzailez osatutako talde belgikarra. St. Joss-ek egindako artwork aparta. Kasetean eta formatu digitalean argitaratua. Jazz elektronikoaeren estiloa du.

Herrmutt Lobby Midi & Demi 2014 Thin Consolation

Colectivo belga formado por músicos electrónicos, operarios y programadores. Artwork extraordinario obra de St Joss. Se ha editado en casete y en formato digital. El estilo ronda el jazz electrónico.



Kumasi Music-en deep house eta indie dance bildumako bigarren alea. Ikusgarria txitxar exotikoa.

V.V.A.A. Kumasi Music Vol.2 2014 Kumasi Music

Segundo volumen del recopilatorio de deep house e indie dance de Kumasi Music. Espectacular cigarra exótica.

Stephen Morgan Fisher tekla jotzaile eta konposatzaile londrestarra. Disko hau rock elektronikoko generoko ambient estiloan koka daiteke. 2004. urtean Voiceprint Records-ek berrargitaratu zuen.

Morgan Fisher Look at Life/Veetdharm 1985 Cherry Red

Stephen Morgan Fisher, teclista y compositor londinense. Este disco se puede catalogar dentro del estilo ambient en el género de rock-electrónica. Se ha reeditado en 2004 por Voiceprint Records.





Rock talde iparramerikarra. Taldekideak: Rock'n Dave Morrish (ahotsa, harpa), Eric Payne (gitarra), Doug Raneri (perkusioa eta bateria) eta Richard Zaff (baxua).


Rent Party Pic-Nic
1996 Monkey Hill - Big Daddy

Grupo de rock norteamericano formado por Rock'n Dave Morrish (voz, arpa), Eric Payne (guitarra), Doug Raneri (percusión y batería) y Richard Zaff (bajo).

Noise erritmikoa jotzen duen talde italiarra. Sei abestik osatzen dute lana eta beren izenak azaleko intsektuen ordenarenak dira.

Exsiderurgica Insecta
2012 Autoeditado

Grupo italiano que se dedica al noise rítmico. Consta de seis temas cuyos títulos corresponden a los diferentes órdenes de los insectos que aparecen en la portada.



Rock independientea egiten duen hirukote txinatarra. Beren herrialdean arrakasta handia dute. Irudian *Rhomborrhina splendida* zetenido indonesiarraren hiru mota desberdin ikus daitezke.

Carsick Cars 3
2014 Maybe Mars

Trío chino de rock independiente muy aclamado en su país. Vemos en la imagen tres variedades diferentes del cetónido indonesio *Rhomborrhina splendida*.

90. hamarkadaren bukaeran sortutako post hardcore talde iparramerikarra, Hellbender-eko eta Sleepytime Trio-ko kide ohiek osatua. Argazkian *Macrodonia cervicornis* zeranbizido tropikal ikusgarria agertzen da.

Milemarker Changing Caring Humans
2000 Stickfigure Records

Grupo de post hardcore norteamericano que se formó a finales de los 90 con ex miembros de *Hellbender* y *Sleepytime Trio*. En la foto vemos un espectacular cerambícido tropical: *Macrodonia cervicornis*.





Ibilbide zabaleko piano-jotzaile, txirula-jotzaile eta konpositore nederlandarra. Musika klasikoz gain, jazz-a, reggae-a edo rocka ere landu ditu. Wordl music-a eta new age-a nahasten ditu.

Chris Hinze SPV/Keytone
1997 SPV/Keytone

Pianista, flautista y compositor neerlandés de larga trayectoria, no sólo ha tocado música clásica, sino también jazz, reggae o rock. Combina la wordl music con new age.

The Slackers taldeko teklatu-jotzaile eta abeslaria den Vic Ruggieroren bakarkako bigarren lana da album akustiko hau. Folk, blues eta punk rock nahastura. The Slackers taldearen eragina nabarmena da.

Vic Ruggiero Aliye At The Ladybug House
2004 Thought-Squad

Este es el segundo álbum acústico en solitario de Vic Ruggiero, teclista y cantante de *The Slackers*. Mezcla de folk, blues y punk rock. Se notan las influencias de *The Slackers*.



Dark ambient-a, neofolk-a edo neoklasikoa lantzen duen musika talde san frantziskotarra. Kris Force liderak soprano-ahotsa du. Cocteau Twins, Julee Cruise edo Lisa Germano taldeen funtsean daude.


Amber Asylum Natural Philosophy of Love
1997 Relapse Records

Colectivo de músicos de San Francisco inmersos dentro del dark ambient, neofolk o neoclásico. Su líder Kris Force tiene voz de soprano. En la esencia de grupos como Cocteau Twins, Julee Cruise o Lisa Germano.

Trantze psikodelikoa jotzen duen Erresuma Batuko talde honen bosgarren albuma.

Ood You think you are
2012 Vertigo Records

Quinto álbum de estudio de esta banda del Reino Unido que se dedica al trance psicodélico.



HEMEROTEKA

PLAGAS URBANAS

Comunes

- Insectos. Moscas, mosquitos, polillas de la ropa, escarabajos, cucarachas, termitas o carcomas.
- Otras. Algunos ayuntamientos comprenden a las ratas o las palomas como plagas urbanas a controlar.

Nuevas especies

- Euskadi. Tecnalia apunta tres como a tener en consideración: el tigre del plátano (ataca a la flora urbana), el mosquito tigre (más agresivo que el común en el País Vasco) y la avispa asiática (que se ha asentado en partes de Gipuzkoa y se extiende ya hacia Cantabria).
- Europa. El proyecto Betitex advierte de la proliferación de la garrapata y el chinche de cama.

El Diario Vasco 23/01/2015

Pinubeldarraren aurkako tratatzea hasiko du Bizkaia

- Bizkaiko koniferoen %7ri eragiten die pinu beldarrak, batik bat intsinis pinuel. Foru Aldundiak aste honetan iragarri du haren aurkako tratatzea jarriko duela abian. 4.700 hektareari egingo die kontrol fitosanitarioa, jabe pribatuenak direnen azalerei nahiz erakunde publikoen esku daudenei. Hasieran, larbak sortu berri direnez, aire bidez egingo da tratatzea, eta neguan, zuzenean. Urtero 250.000 euro inguru erabiltzen ditu diputazioak pinu beldarrari aurre egiteko.

El Diario Vasco 23/01/2015

Proyección fotográfica

El fotógrafo Antonio Valencia ofrecerá a las ocho de la tarde en la Sociedad Fotográfica de Donostia, en el Paseo Nuevo, una proyección de su colección 'pequeños animales', constituida por fotos de todo tipo

de bichos. El autor comentará las fotos y responderá a todas las preguntas que el público quiera realizarle. La entrada es libre. **Donostia.** A las 20.00h, en la Sociedad Fotográfica



El fotógrafo Antonio Valencia.

Noticias de Gipuzkoa 06/08/2014

HEMEROTEKA

Los bomberos retiran tres avisperos al día de media

Los bomberos de Donostia han venido retirando en las últimas semanas tres avisperos al día de media. En total, ha destruido 200 nidos y en otros 60 sus poblaciones han sido eliminadas mediante biocidas. Asimismo, otros cuarenta nidos no pudieron ser neutralizados «dado que se encontraba en lugares inaccesibles para nosotros y, además, no entrañaba ningún riesgo para la población», afirma Imanol Andonegi, oficial del cuerpo de Bomberos de San Sebastián.

Las operativos de retirada, según explica Andonegi, se llevan a cabo ya de noche cuando las poblaciones de la especie retornan a los avisperos. «Aprovechamos que se hallan todas en el interior para llevar a cabo el trabajo. De esta manera resulta más efectivo», detalla.

Durante las operaciones de eliminación de avisperos, los bomberos van equipados con vestimentas especiales. «Hasta el momento, no hemos sufrido ningún ataque. Apenas habremos registrado dos o tres picaduras en toda la temporada y éstas se han producido no tanto durante las operaciones de retirada de los avisperos, sino cuando acudíamos a inspeccionar la zona y de repente nos encontramos poco menos que de bruces con el nido», explica el oficial.



KLIK

Bi begi pare,
aurrez
aurre jarrita

Aurrean duak ezin hori
begizata bezalakoak ez
da puzatzen, edo apena
diren eta, ezta baina,
segurtasun hori
buruetatik atera
baita, baina hain egiazko
bat (eta hain seguri da, ez du
errotaldun errotaldun
puzatzen) errotaldun hori
baita errotaldun hori
nola ikusaten, ezin
guzko begi tuta
nabeko eta nola
aita/eta, «errotaldun
nabeko hori hori
dago...» errotaldun hori
baita errotaldun hori
Kuzko errotaldun hori
baita errotaldun hori
errotaldun hori hori
errotaldun hori hori
errotaldun hori hori

GARA 2015/01/13

Reclaman acuerdos para retirar nidos de avispa

GIPUZKOA


El PSE de Gipuzkoa ha solicitado a la Diputación que antes de que comience la temporada de retirada de nidos de avispa asiática (primavera) y «en previsión de que pueda ser un año duro» se alcancen acuerdos con los ayuntamientos para formar personas y facilitar esa retirada de nidos de la especie invasora. El protocolo recoge que son los consistorios los responsables de su retirada. DV

El Diario Vasco 23/01/2015



INTSEKTUEKIN JOLASEAN JUGANDO CON INSECTOS

Faustino Uranga





Gurutze bat osatzen duten hamar fitxa dauz-
kagu, amona mantangorriaren irudiarekin. Ea
fitxa bat mugituta ilara bakoitzean sei fitxa ego-
tea lortzen duzun.

Tenemos estas seis fichas de mariquitas que
forman una cruz. Tienes que mover una de las
fichas de tal modo que en cada fila haya seis
fichas.


Tolestuta dauden kubo hauetako bat Kakalardo maisuak egin duen A planoari dagokio.
Ba al dakizu zein den?

Uno estos 4 cubos plegados corresponde al plano A que ha construido nuestro profesor
Kakalardo. ¿Sabrías decir cuál de ellos es...?



Aurreko zenbakiko erantzuna / Respuesta al número anterior:

16	3	2	13
5	10	11	8
9	6	7	12
4	15	14	1



Zetarren arrautzen
ontza batean (= 28,35 gramo)
40.000 ale inguru
egoten dira
eta jaio ondoren
1.200 kilogramo
morera jaten dituzte.



por ellas a lo alto de los
pinos

Se utilizan como control
biológico contra esta plaga

Ia armiarma guztiek
hankak galtzen dituzte
eraso edota defentsa
baten ondoren.
Hurrengo mudara iristen
direnei birsortu
egiten zaizkie.


una media de 450 orugas
de procesionarias. Puede subir

El Calosoma scrutator
devora en un solo verano



Algunas especies
de escarabajos
peloteros son,
junto con
los seres humanos,
los únicos animales
capaces de reconocer
la Vía Láctea en el
cielo y utilizarla
para orientarse
por la noche





flora
kultura
PAISAJIA

ocio
historia

kultura
paisaje
kosta

RUTAS
gestioa

aisia

senderos

fauna

gipuzkoa

flora

FAUNA landare

bizitza

esentzia

gipuzkoa

sustraiak

lurra

natura

paisaia

RUTAS

mendiz-mendi
paisajes culturales

mendez-mende
naturaleza con historia



GIPUZKOA

zurekin, aurrera →